

Èta zuri egingo balizute?



ZERGATIK IRAKURRI LIBURU HAU?

Istoriò dibertigarri honek jazarpen-egoera bati nola aurre egin azaltzen duelako eta ikasleen artean eskola-giroan gerta litezkeen jazarpen-egoerak hautemateko eta prebenitzeko balio dezakeelako.

ARGUMENTUAREN LABURPENA

Sophieri bere semeak galdetzen dionean ea inoiz gertatu zaion hazten eta heltzen lagundu dion zer-bait, Sophieri opor batzuetan bere lehengusuak eta lehengusinak egin zioten jazarpen psikologiko larria dator kio gogora. Sophieren izebak ez zuen, ordea, ezer egin egoera haren aurrean. Zorionez, Sophiek bere amaren laguntza eta babesa izan zituen, bizipen latz hura gainditzeko.

NORENTZAT DA LIBURU HAU?

Era guztietako irakurleentzat, istorioa nahiko irakurterraza baita eta jazarpen-egoerei nola aurre egin hausnartzeko bide ematen baitu, edozein dela ere jazarpenaren tes-tuingurua.

JARDUERA-PROPOSAMENA



BAKARKA

Eskatu zure ikasleei azal dezatela Sophieren **bilakaera psiko-logikoa**, hiru atal hauek kontuan hartuta:

1. Lehengusu-lehengusinen etxera egindako lehenengo bi-saldia.
2. Udako oporrak.
3. Sophieren ama izebaren etxean agertzen denekoa.



BIKOTEA

Proposatu zure ikasleei egiteko, binaka, Felixi nahiz Sophieri lehengusuak eta lehengusinak egindako **umiliazio eta tratu txarren zerrenda**. Esan zehatz-mehatz deskribatu behar di-tuztela, horrelako egoerekiko sentiberatasuna areagotzeko.



TALDEA

Hausnartu denen artean **jazarpenaren gaiarekin** lotutako al-derdi nagusiez: gertatzen ari dena kontatzeak eta etxeko babesa izateak duen garrantzia (*adibidez: Sophieren ama*); ja-zarpen-egoera ikusten dutenen eta horren aurrean ezer egi-ten ez dutenen jarrera (*adibidez: izeba Cora eta Sophie bera Felix umiliatzen dutenean*); zerk eragin dezakeen norbait ja-zarle bihurtzea (*adibidez: izeba Corak ahizparenganako dituen zeloak*); ulertzea norbait alde batera uztea ere (*adibidez: jolas-ten ez uztea*) umiliazioa izan daitekeela; etab.



TALDEA

Proposatu ikasleei egin dezatela, talde txikitan, **dekalogo** bat zer egin jakiteko jazarpen-egoera baten biktima edo lekuko izanez gero (*adibidez: 1. Zer gertatzen ari den ongi jakin. 2. Gu-rasoei edo irakasleei esan. 3. Biktima baldin bazara, errudun ez sentitu. 4. Lekuko baldin bazara, salatu; etab.*). Jarduera errazte aldera, *Gaur ere bai* izeneko bideoa ikus dezakezue, institutu batean egin eta Adin Txikiko Defendatzaileak argitara-tua (www.e-sm.net/corto).

Irakurri dekalogoak ikastalde osoaren aurrean eta osatu de-nen artean informazio garrantzitsuena jasotzen duen bat.



IDAZKETA-TAILERRA

Esan ikasleei idatz deza-tela **gutun** batean Sophiek bere amari benetan kon-tatu nahi zion baina idaz-tera ausartu ez zen guztia. Adieraz ditzatela gutu-nean Sophiek sentitutako beldurra, nahigabea eta tristura.